

AZPIEGITURAK. AHT Gelditu! Elkarlana koordinakundeak gonbita helarazi die alkate eta zinegotzi guztieiI. Pexarroman | **DONOSTIA**

AHT Gelditu! Elkarlana koordinakundeak proiektuan den Abiadura Handiko Trena (AHT) igaroko den herrietako alkate eta zinegotzi guztiei gonbidapena egin die, etzi Elorrioren egingo den bileran parte hartzeko. Hain zuzen ere, koordinakundea oraingoz osatzen duten bederatzi udalek esku artean dituzten ekimenen berri emango diete gainerako udal ordezkariak, eta haien atxikimendua eskatuko diete.

Orain arte Espainiako Entzutegi Nazionalan aurkeztu duten errekursoaren berri emango diete, eta baita heldu den asteotan EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren aurrean aurkeztuko dutena ere. AHT Gelditu! Elkarlana koordinakundeko udalek administrazioarekiko auzi helegitea aurkeztua dute Entzutegi Nazionalan, Espainiako Sustapen Ministerioak Euskal Y onartzeko egindako azterketa teknikoaren aurka. Helegitearen arabera, trenbide sare berriaren proiektu informatiboa «bete ez zituen lege parametroetan» oinarritzen da; eta, halaber, ingurumenaren duen eragina aztertzerakoan hainbat arau-hauste egin ditu.

EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren aurrean ekainaren 9a baino lehen aurkeztuko duten helegitea, berriz, EAEko Trenbide Lurralde Plan Sektorialaren aurkakoa da. Apirilaren 9an argitaratu zuen bere onarpena Jaurilaritzak, eta, beraz, bi hilabeteko epea dago errekurtsoa aurkezteko. Elorrioko bileran eskatuko diete udalei bat egiteko errekurtsorik.

Kexa Europara

Halaber, AHT Gelditu! Elkarlana kexa bat aurkezteko



JOSU ETXEBARRIOSTE

AHT Gelditu! Elkarlana Koordinakundeko udal ordezkariak, Entzutegi Nazionalan jarri zuten errekurtsoa aurkezteko egindako agerraldian.

AHTren aurkako ekimenak aztertzeke bilera egingo dute udalek etzi Elorrioren

‘Euskal Y’aren aurka esku artean dituzten ekimenen berri emango zaie udalei, eta atxikimendua eskatuko diete

asmoa du Europako instituzioetan, eta kexa horrekin ahalik eta udal gehienek bat egitea nahi dute. Udalez gain, edozein euskal herritarrek ere aukera izango du kexarekin bat egiteko. Udalen atxiki-

mendua kexa horrekiko ekainaren erdialderako jaso nahi dute, eta gero irekiko lukete epea norbanakoak ere atxikitzeke.

Bilera larunbatean izango da, goizeko 10:00etan Elo-

rrion. Gai ordena bi puntukoa da: lehenik, koordinakundea aurkeztuko diete ezagutzen ez duten udal ordezkariak, eta ondoren errekurtsorik eta ekimenen berri emango diete. Gero, eztabaida zabalduko dute, gal-

Ekainak 16**Manifestazio nazionala**

AHT Gelditu! Elkarlana deituta, Abiadura Handiko Trenaren aurkako manifestazio nazionala egingo da Donostian, ekainaren 16an (larunbata). Azpiegitura proiektu horren aurka inoiz Euskal Herrian egindako mobilizaziorik jendetsuena antolatu nahi du koordinakundea.

derak, zalantzak eta iradokizunak aztertzeke.

AHT Gelditu! Elkarlana koordinakundea joan den martxoaren 15ean aurkeztu zuten Gasteizen. Besteak beste, EHNEk, LABek, EHk, IUk, Zutik, AHTren Aurkako Asanbladak, Lurra ekimenak eta beste hainbat alderdi, sindikatu eta elkarte osatzen dute. Taldea hiru zeregin nagusitarako jaio zen: mobilizazio eta ekintza informatiboak egiteko, ekimen juridikoak aurrera eramateko eta ekimenak sustatzeko instituzioetan.

Oraingoz bederatzi udalek osatzen dute koordinakundea: Elorrio (EHko alkatea), Abadiño (EAJ), Anoeta (EH), Iurreta (EAJ), Legutio (EH), Zizurkil (EH), Ezkio-Itsaso (EH), Oiarzun (EH) eta Ezkoria (EH). Udal horiekin batera, hainbat elkarte eta 215 pertsona aurkeztu zuten errekurtsoa Espainiako Sustapen Ministerioak Euskal Y-aren proiektua baimentzeko hartutako erabakiaren aurka. Joan den apirilaren 5ean aurkeztu zuten errekurtsoa Espainiako Entzutegi Nazionalan.

INGURUMENA. Ezpitsua plataformak Zuloko-Ibarreta lehorteza gelditzea eskatzen du, lanak «legez kontrakoak» direlako

Sei lagun atxilotu dituzte Barakaldoko hezegune bat babestearen aldeko protestan

Erredakzioa | **BILBO**

Barakaldoko Zuloko-Ibarreta hezegunea babestearen aldeko protestan parte hartzen ari ziren sei lagun atxilotu zituen Erztaintzak, atzo. Aurreko eguneko protestetan beste zortzi atxilotu zituen. Dagoeneko, guztiak aske daude.

Ezpitsua plataforma ekologikistak antolatutako protesta ekintza horien bidez, Barakaldoko Udalak Zuloko-Ibarreta hezegunean saltoki handiak eraikitzeke egiten ari den lanak geldiarazi nahi dituzte.

Protestak ostiralean hasi zituzten; hain zuzen, «Ezkerraldoko azken hezegunetzat» jotzen dutenaren lehorte lanak hasiak zirela jakin zuten egun berean. Geroztik, egunero protestak egiten ari dira.

Ezpitsua plataformak lehorte lanak gelditzea eskatu dio epaileari. Izan ere, talde ekologikistako kideek atzo azaldu zuten, «Udalak baimendutako lanak legez kontrakoak dira: bate-tik, lanok ingurumenaren babes berezia duen inguruan egiten ari direlako, eta bestetik, gune horien eskumena Madrilgo Go-

bernuauren esku dagoelako». Ingurumen Ministerioaren Kosta Zuzendaritzak Ibarreta-Zuloko hezegunearen garapen urbanistikoa «ahalik eta gehien atzeratzea» eskatu zion Barakaldoko Udalari joan den martxoan. Izan ere, Kosta Zuzendaritzaren arabera, «arrazoi sendoak daude Kosta Legeak inguru hori gune babestu izendatu ahal izateko».

Hezegune horretan, besteak beste, Ikea enpresak saltoki handi bat ireki nahi du. Barakaldoko EH, IU-EB eta PP proiektuaren aurka daude.



JOSU ETXEBARRIOSTE

Ezpitsua taldeko kideak, atzo eman zuten prentsurrekoan.